

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko apirilaren 21a. VIII. urtea. 2.214. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Ustez lapurtutako haurren familiak lagunduko ditu Tolosako Udalak

ANADIR elkartearen izenean Juan Bautista Aranzabek mozioa aurkeztu du udaletxean; Udalbatzaren bilkuran aho batez onartu dituzte eskariak

Besteak beste, Tolosako udal ordezkariari, egia argitzeko bidean laguntzea, eta kaltetuei laguntza psikologikoa ematea eskatu die ANADIR elkarteak ◦4

‘Amezqueta etxez etxe’ liburua aurkeztu du Oterminek

Herriko etxeen historia bildu du 620 orrialdeko lanean; 220 fitxa inguru aurki daitezke bertan, 500 argazkirekin batera ◦6

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea

«Krisiak guztiongan du eragina, eta guztion artean irten behar dugu bertatik»

Amaitzean dagoen agintaldiko argi-ilunak aztertu ditu udal ordezkariak ◦2-3



EMAZ

→ Hizki-Marrazki ipuin lehiaketako sariak banatuta.

Haur eta gazte literatura suspertu nahian Anoetako Udalak eta Herri Ikastolak lehiaketa antolatzen dute. Eguna ipuin kontalariaren saioarekin hasi dute, eta ondoren, sariak banatu dituzte. Epaimahaiak 15 lagunek idatzitako 12 ipuin saritu ditu. ◦5

ASTE SANTUKO
OPORRALDIA

Lan-taldearen Aste Santuko oporraldia dela-eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA ez da apirilaren 22tik apirilaren 26ra arte argitaratuko.

Apirilaren 27an izango gara berriro ere zuekin

Jokin Bildarratz » Tolosako alkatea

Elkarrizketa hau 'Gipuzkoako Hitza'-n aterako da bihar. Aste Santuak direla medio, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN** harpidedunek ez dute zenbaki hori jasoko. Ondorioz, gaur argitaratzea erabaki dugu.

«Lagundu nahi zuten guztiek eduki dute lekua udalean»

Asier Imaz Tolosa

Osasun publikoa edo pribatua, *Voith-Gorostidi auzia*, abiadura handiko tren eta krisia hizpide izan dira azken lau urte hauetan. Jokin Bildarratz (1963, Tolosa) alkateak amaieran dagoen legealdiaren errepasoa egin du.

Zein da agintaldi honetako puntu indartsuena eta zein ahulena?

Indartsuena: agindu genuena bete egin dugula. Eta ahulena: krisiak sortu duen egoera, batik batik langabeziarena.

Zeintzuk dira agindutako proiektu horiek?

Tolosan zehar ibilbide bat egitean agerian gelditzen dira: Voith-eko etxebizitzak; aparkaleku berriak; Alde Zaharra, Zumalakarregi kalea eta Euskal Herria plaza oinezkoentzat gelditu dira; Topic-zentroa, Europa mailan erreferentea dena... edo landa auzoetan martxan jarri den Berpiztu plana. *T's bat* sail berria ere azzimarratu nahiko nuke, baita Amartz eta San Esteban auzoetako bizilagunekin definitzen ari garen auzo berrien inguruko lanketa ere.

Berdintasun ikuspegia ere landu dugu, eta harro sentitzen naiz egindako lanaz. Ibarretxe lehendakariak esaten zuen bezala, benetako demokrazia hainbat gauza direla-eta ailegatuko da, baina baita emakumearen papera gizonaren paperarekin berdintzen denean. Azken finean pertsonak dira gure kudeaketaren helburu eta ardatza.

Krisi garaian nondik lortu duzue finantziaketa?

Diputazioetik, Madriletik, gobernutik eta gure funts propioetik. Topic-en kasuan adibidez, kostua txost zatitan banatu zen, eta Kutxak ere parte hartu zuen.

Kolektorea eta gerontologiko berria ere garrantzitsuak izan dira.

18 milioi euroko obra bat izan da, eta ehuneko ehuna Eusko Jaurlaritzak ordaindu du. Gerontologikoaren kasuan, lehiaketara atera genuen; aldundia eta kudeatzen ari den enpresaren artean ordaindu dute kostua, 24 milioi eurokoa. **Udaletxea zer moduz aurkitzen da ekonomikoki?**

Ondo. 2008an eta 2009an euskal udaletxeek 550 milioi euro itzuli



A. IMAZ

behar izan zituzten. Gure kasuan, 4-5 milioi inguru izan ziren. Aurrezteko plan bat jarri genuen martxan, eta aurrekontuan murrizketak egin genituen. Horrekin eta gastatu ez zen diruarekin, ia dena itzuli dugu. Falta dena inongo arazorik gabe itzuliko dugu.

Krisiaren aurkako zein neurri hartu dituzue udaletik?

Duela bi urte talde bat osatu genuen udaletxean, eta alderdi guztietako ordezkariak gonbidatu genituen bertara. Azken finean, krisiak guztiongan du eragina eta guztion artean irten behar dugu bertatik. Erakunde desberdinen arteko elkarlana ere beharrezkoa da. Udal bezala, bi ildo jarraitu ditugu: alde batetik, barrura edo udaletxera begira, gastuak nahiz kontsumoa murriztuz. Bestetik, neurri garrantzitsuak hartuz, adibidez, Eusko Jaurlaritzarekin batera 60 lagun kontratatuz; Tolosaldea Garatzenekin batera for-

makuntza bultzatuz; Apatta Erreka industrigunearen bigarren fasea martxan jarritz; enpresei laguntzeko Lehiberri lehiakortasun institutu berria sortuz edo Efficient Home Energy bezalako enpresak Tolosan kokatuz.

Dendari txikiak ere kontuan hartu al dituzue?

Eurekin elkar hartuta aritu gara lanean. Guretzat denda txikiak oso garrantzitsuak dira, 1.200 lanpostu zuzen baino gehiago sortzen baitituzte. Hala eta guztiz ere, horrelako krisi baten aurrean nahiko mugatuta aurkitzen zara udaletxe edo alkate bezala. Egin dezakezun bakarria ahalik eta neurri eraginkorrenak hartzea da, adibidez, inbertsio publikoaren bidez.

Tolosako Udaleko sailen arduradun, EAJko ordezkari ez gain, PP, PSOE, Hamaikabat eta EAko hautetsiak egon dira azken legealdi honetan.

Nahi izan izan duten guztiek eduki dute lekua udalean.

Zergatik?

Politika ikusteko dugun moduagatik. Horrekin batera, EAJk gehiago osoa lortu zuen, eta horrek ere eskuzabaltasunez jokatzen laguntzen du. Gure printzipio nagusiekin ados egotea eskatu genuen, eta lagundu nahi zuten guztiek eduki dute lekua. Guztion artean gehiago egin genezakeela pentsatzen genuen; hori izan da gure taldearen ardatz nagusia.

Kolore desberdinetakoak izaki, arazorik egon al da zuen artean?

Gure artean leialtasun osoz ibiliri gara, eta horrek emaitza ona ekarri du tolosarrontzat. Batik bat Tolosan egon den giroa azzimarratuko nuke, oso ona izan baita. Beste legealdi batzuetan ez bezala, oso lasai joan da dena. Politikarekin lotutako gairen batean, euskararen inguruan, desberdintasunak egon dira, baina adostasuna lehenesten jakin izan dugu.

Oposiziorik egon ez denaren sentsazioz ez al duzu?

Ez. Alderdi politikoak oposizioan egon dira. Egia da egin diren gauzen %90ean erabateko adostasuna egon dela. Nire ustez hori positiboa da. Jendeari liskarra ez zaio gustatzen, batik batik, politikoa. Hauteskunde garaian berriro elkar mokoka ikusiko ditugu denak. Izaera kontua ere badela uste dut; apaltasunez egin behar da aurrera.

Herritarren zati garrantzitsu batek, aldez, ez du ordezkari politikorik eduki.

Oso portzentaje garrantzitsua izan da, bai. Niretzat hor bi errudun daude; alde batetik, alderdien legea eta hori defendatu dutenak, eta beste estrategia batean eman ditu. Orain, aldatzen ari direla ikusten da, eta beste guztiek duela 30 urte egin genuena egiten ari dira.

Egoera hori gaitzitzeko zer egin duzue udal bezala?

Lehen esan bezala, herrigintzan eta herri politikan eskuzabaltasuna eduki behar da. Bi legealdi horietan gure eskuzabaltasuna eta parte hartze eskaintza izan dute ezker abertzalekoek. Bi baldintza jarri genizkien: ikuspegi juridiko, normatibo eta legala errespetatzea, eta beraiek nolabait kalifikatu zituzten «inegotzi lapurrak» lasai uztea. Ez zituzten bi esparru horiek bermatu nahi izan eta kanpoan geratzea nahia go izan zuten.

Tolosako alkatea, Eudeleko presidentea, Tolosaldea Garatzen eta Lehiberri ere ardurak... Zaila al da horrenbeste kargurekin oinakin lurren edukitzea?

Elementurik garrantzitsua Tolosako alkatea izatea da. Gainontzeko ardurak horren ondorio dira, beste herrietako alkateek beste hainbat ardura dituzten bezala. Eta gero, alkatea izatea nola ulertzen duzun da kontua. Zer da alkate izatea? Komunitate edo kolektibo baten koordinatzaile, arduradun edo liderra izatea momentu baterako. Baina beste guztiak bezalakoa zara; noizbehinka mendira joatea gustatzen zaizu, parranda egitea...

Baina ba al duzu lasai parranda egiteko aukera?

Gehienetan bai. Noizbait izan dut arazoren bat norbaitekin, baina gutxitan. Nire ustez, gainera, jendeak gustura hartzen du beste edozein bezala ikusten zaituenean; parrandan goizeko ordu bietan Gin Tonic bat hartzen adibidez. Baita ere, egia da alkatea eta zinegotziak direla herritarren-gandik gertuen dauden kargu politikoak, eta onerako eta txarrerako horrela da. Alde batetik, errealtatea gertu-gertutik ezagutzen duzu, eta bestetik, askotan ez daukazu atsedean hartzeko nahi bezain besteko denbora.

Etxebizitzaren salmenta beheraka doan arren, Tolosan eraiki eta eraiki aridira. Nola uler daiteke kontraesan hori?

Oso erraz uler daiteke. Etxe salmentak beheraka doaz, hori horrela da, baina etxebizitzak lehen mailako behar bat izaten jarraitzen du. Gazteek gurasoen etxetik atera nahi izaten dute, baina horretarako laguntza behar dute. Onartu dugun plan orokorrean, etxebizitzaren ia %60 babestuak izango dira. Bestalde, 2010-13rako egin dugun plan estrategikoan, etxe babestuen eta alokairuko etxeen aldeko apustua egin dugu. **'Voith-Gorostidi auzia' hasieratik, nola azalduko zenioke herritik kanpo bizidena?**

Eremu industrialak zela esanaz. Bertan zeuden sei enpresa baino gehiagotan, 400 langilek egiten zuten lan. Enpresa horiek beste eremu batetara mugitu dira, eta gune horretan etxebizitzak jarri ditugu; horien %63 babestuak. Horrek esan nahi du, %20 babes ofizialekoak direla eta %43 tasatuak.

Asko jadanik eraikita daude. Guztira zenbat aurreikusten dira?

700 inguru.

Noiz gauzatu zen proiektua?

2005ean. Estatu osoan ez da inoiz horrelako operaziorik egin. Hau da, garai hartan, Maturana legea zegoen indarrean. Honen arabera, babes ofizialeko etxeek %20 izan behar zuten. Guk, aldiz, %63 jarri genituen.

Nola bukatu du epaitegian?

Ezker abertzaleak trikimaillu bat erabili zuen. Guk 2005ean aprobata genuen, eta onarpen guztia eman zitzaion. Gero lurzorua legea aprobata zuten. Lege honetako puntu bat ez zuen betetzen, baina guk jadanik plan orokorra aprobata genuen, eta desfase horri markoa ematen zion, nolabait, bereganatu egiten zuen. Bitartean, ezker abertzaleak aldaketa puntual hori epaitegietara sartu zuen. Epaileak aldaketa puntuala gaizki eginda zegoela esan zuen, deuseztatu egin behar zela. Orduan, udalaxeak deuseztatu egin zuen eta hori bukatu zen kontua.

Hor amaitu al zen auziaren ibilbidea?

Beste ibilbide bat izan zuen. Udal bilkuran aldaketa deuseztatu eta

aldizkari ofizialean publikatu ondoren, nahiz eta plan orokorrarekin deuseztatua egon lehendik, ezker abertzaleak errekurtoa jarri zuen, obraren eta eremu guztia gelditzeko eskatuz. Epaileak guk epaia bete genuela esan zuen. Jada guk bagenuela plan orokor bat eta horrek eremu guzti hori biltzen zuela; ez zuela inongo zentzurik obra geratzeko. Hor bukatu zen dena, eta hor ez dago beste historiari. Dena bideraturik dagoela esan daiteke, baldin eta ez badago beste inor beste helburu batzuekin.

Eta agertuko al da norbait?

Hemen arazoa zera da: ezker abertzalea udalean egon zenean 60 etxebizitza babestu eraiki zirela, eta guk jadanik 600 bideratu ditugula. Benetarra da, bai baita-kite arrazoirik ez daukatela. Gazteei irtenbide bat ematea baino, helburu politikoak lehenesten dituzte. Guk alderantziz egin genuen, gazteei aukera bat ematea lehenetsi genuen.

Abiadura handiko trenaren lanak hasi dira eskualdean, zer ekartzen dio proiektu honek Tolosari?

Bere garaian Leitzarango bideak ekarri zion antzeko erantzuna. Hala eta guztiz ere, alde baikorra bat badago hemen. EAJ beti egon da garraio kolektiboaren alde, eta kasu honetan, trenaren lehenetsiz kotxe partikularren lekuan. Elementu kolektiboak beti dira jasangarriagoak, seguruagoak eta egokiagoak. Azpiegitura garrantzitsua eta handia denez, lanak eta eragozpenak ekarriko ditu, baina aldi berean, baditu beste hainbat elementu positibo: ekonomiaren sustapena, enpleguak, inbertsioa...

Tolosaldeko osasun zerbitzu publikoak kezka iturri bilakatu da azken hilabeteetan.

Bailarako alkate guztiak elkarrekin ari gara lanean, Tolosaldea Garatzenen barruan. Bi mozio atera dira hortik, nahiko antzekoak, eta guk horietako bat aprobata dugu: Eguno egoera kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzarekin batera, eskualdeko ospitale publiko bat eraikitzeko zein aukera dauden lantzearen aldekoak gara. Baina oso garrantzitsua da egungo egoera kontuan hartzea, Asuncion Klinikari 300 langile aurkitzen baitira. Asuncion publikoa izan dadin zein aukera dauden aztertzearen alde atera ginen gehienak Udaltzaren bilkuran. Beste bailaretan dagoen sistema publikoa nahi dugu eta hori jakinarazi genion sailburuari. Eskualdeko alkateekin gai honen inguruan eztabaidatzeko konpromisoa hartu zuen, nahiz eta gauzak oso garbi dituela esan zuen.

Egun dagoen egoera ikusita eta aztertuta, kudeaketa era batekoa edo bestekoa izan, gure helburu nagusia, Tolosaldeko herritar guztiak beste bailek dute zain-tza beretsua edukitzea izan beharko litzateke.

Irudia Tolosa**IBAI IRIARTE DA BILDUKO ALKATEGAIA**

Bildu koalizioak bere zerrenda aurkeztu du Tolosarako, Zabalzarreta parkean. Ibai Iriarte da alkategaia, eta hurrenez hurren, zerrendako lehen

postuetan ondorengoak aurkeztu dira: Lore Agirre, Hasier De Los Rios, Edurne Mendia eta Peio Etxabe. HITZA

Pablo Uzkudun irabazle, Manolo Garcia Trofeoako nagusien mailan

Nagusien mailako bigarren eta hirugarren, Tolosaldea taldeko Jokin Otaegi eta Iosu Carrera izan ziren



I. Garcia Tolosa

Tolosaldea IKTKo Pablo Uzkudun igerilariak irabazi zuen XII. Manolo Garcia Trofeoako nagusien mailan. Trofeoaren irabazlea, maila guztiak kontuan hartuta, Oarsoaldea taldeko Maitane Danboreneak izan zen, bizkarrezko 100 metrotan 1:05:66 egin eta 693 puntu eskuratu. Txapelketa Tolosako Usabal kiroldegian egin zen asteburu honetan.

Uzkudunek 668 puntu lortu zituen, bizkarrezko 100 metrotan 59:40 egin. Gizonezkoen nagusien mailan Tolosaldea taldeko Jokin Otaegi eta Iosu Carrera izan ziren bigarren eta hirugarrenak.

Emakumezkoen nagusien mailan, lehenengo postua, noski, Maitane Danboreneak lortu zuen. Tolosaldeako Marta Alonso izan zen laugarrena, bizkarrezko 100 metrotan 1:07 egin.

Emakumezkoen infantil mailan,


Iragarki laburrak**EROSI**

■ **Bizikleta.** Paseorako bizikleta merke eta erosoa erosiko nuke. Interesatuek deitu 655 71 18 73 telefono zenbakira.

Usabalen egin zuten XII. Manolo Garcia Trofeoa. I. GARCIA

lan, Buruntzaldea taldeko Itsaso Tolosa izan zen irabazlea, 1:11:00 egin bizkarrezko 100 metrotan eta 548 puntu lortuz. Mutilen infantil mailan, Oarsoaldea taldeko

Oier Ansa izan zen, 545 puntu lortuz bularreko 200 metroko proban 2:35:77 egin ondoren. Bosgarren postuan Tolosaldeako Imanol Ezeiza sailkatu zen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Juan Bautista Aranzabe 'Mate'-k, ANADIR elkartearen izenean testu bat irakurri zuen. Alboan, bere emaztea. A. IMAZ

ANADIR elkartearen mozioa aho batez onartu du udalak

Ustez lapurtutako haurren guraso eta familia kaltetuen elkarteak hainbat eskaera egin dizkio Tolosako Udalari

Tolosako Udalak lan talde bat osatuko du «ahalik eta azkarren», beharrei erantzuteko

Itzea Urkizu

Asteartean Tolosako udaletxean ospatu zen osoko bilkuran, aho batez onartu zuten udal ordezkariak, ustez lapurtutako haurren familiei babesa emateko mozioa.

ANADIR elkarteak aurkeztu du mozioa, haurren lapurretek eta adopzio irregularrek kaltetutako elkarteak, hain zuzen. Gaur egun, Estatuko Fiskaltzan haurren ustezko lapurreten eta adopzio irregularren 1.000 kasu erregistratuta daude, eta horietatik 100, Euskal Herriko auzitegie-

tara iritsi dira. Kasu hauetariko gehienak, 1940. urtetik 1980rainoko tartean gertatutakoak dira, eta batez ere, 60ko eta 80ko hamarkadetakoa. Tolosan bertan, ANADIR elkartearen erroldaren arabera, 30 bat lapurreta edo adopzio irregular gertatu ziren, San Juan klinikan, San Cosme y San Damián klinikan eta Asunción klinikan.

Gauzak horrela, Tolosako udal ordezkariak zenbait eskaera egin dizkiete ANADIR elkarte arduradunak. Lehenik eta behin, eskualdean haurren lapurretek kal-

tetutako pertsonen laguntza psikologikoa ematea nahi dute, beharrezkoa den kasuetan. Era berean, egia argitzeko bidean, erakundeetan egin beharreko bideratze guztiak udaletik bertatik egitea ere egokia dela uste dute. Gainera, kaltetuek auzitegi-tara joan behar dutenerako, abokatuekin laguntzea ere eskatu diote udalari. Azkenik, justiziak kasu honetan zerikusirik izan dezakeen edonori jarrai diezaion eskatu dute, «pertsonak lapurtzea delitua baita».

Tolosako Udalak, bere aldetik, ahalik eta azkarren lan talde bat osatuko duela aipatu du, ANADIR elkarteak egindako eskaerak aurrera eramateko.

Honen harira, ANADIRen ustez aipatzekoa da, «Tolosako Udalak izan dela, bai gure eskualdean, bai estatu mailan, haurren lapurreten inguruko mozio bat onartu duen lehen udala».

Iruzurren prozedura

Haurrak ustez lapurtu, edo adopzioan modu ilegalean eman zituzten kasu gehienetan, jardunbide antzekoa erabili zuten: erditzearen ondoren, haurrak ez zizkieten euren gurasoei erakusten. Zilborhestearekin ito zirela edo besterik gabe hil egin zirela esaten zieten. Zenbait testigantzek diote, gurasoei zendutako haurra izoztuta ere erakusten zirela.

Urteetako zalantzak

Kaltetutako guraso eta familieta-ko asko, «urteetan zehar» aritu dira erregistro zibilean, Osakidetza-ko historialetan nahiz hilerri eta ehorrte etxeetan, euren zalantzak argitu nahiean. Informazio faltua edo irregularitasun handiz jositako eman diete ia beti, ordea.

ANADIReko arduradunak, ordea, «pozik» daude, espainiar estatuan jada guraso eta seme-alaba batzuk elkartu direlako.

Harizpe elkarteak Donostiara irteera antolatuko dute

Goizean Kutxaespazioa bisitatuko dute, eta arratsaldean Aquarium-era joateko aukera izango dute

I. Urkizu

Harizpe jubilatu elkarteak irteera antolatuko du datorren apirilaren 28rako. Donostiara joango dira, Kutxaespazioa eta Aquarium-a bisitatzera.

Irteera 10:00etan izango da, San Frantziskotik. Miramonera joango dira, eta goiza Kutxaespazioan pasa eta gero, Urrietako jatetxe batean egingo dute bazkaria.

Arratsaldean, nahi duenak Aquariumera joateko aukera izango du, eta nahi izanez gero, denbora libre izango da.

Izena eman nahi duenak, hilaren 27a baino lehen egin beharko du. Bazkideek 28 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 31 euro.

• tolosa@hitza.info

➔ Laburrak

Asis Sarearen hileroko otoitzaldia hilaren 28an

ERLUIJOA > Hurrengo ostegunean, hilak 28, Asis Sarearen otoitzaldi bilkura izango da Tolosan, Klarisen komentuan, 19:30ean.

Hautagaien zerrenda ikusgai gure webgunean

POLITIKA > Datorren maiatzaren 22ko hauteskundeetako hautagaien zerrendak ikusgai dira jada, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN** web orrian. PDF formatuan jeisteko aukera dago, <http://tolosaldea.hitza.in> fitxan.

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Eusko Legebiltzarrean torturaren aurkako mozioa eztabaidatuko dute

Hainbat eragile eta sindikatuk konponbiderako pausua eskatu dizkiote Espainiako Gobernuari

Eredakzioa Villabona

Torturaren Aurkako Taldeak, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, ezker abertzaleak, EAK, Alternatibak, Labek eta EHNEk azken atxilotuen senideekin batera, torturaren aurkako ekimen berriak iragarri dituzte eta torturaren erabilera salatzen elkartu dira.

Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrean mozio bat aurkeztuko

duela jakinarazi dute. Maiatzaren 5ean eztabaidatuko dute Torturaren kontrako mozioa. Eta egun horretan bertan, eragileek, elkarretaratzea egingo dute parlamentuaren aurrean.

Berataratuek, «azken asteko atxiloteten ondoren, berriro ere tortura latzen aurrean aurkitzen gara», salatu dute. Azken egunetan atxilotutako euskal herritarrek «tortura saio amaigabeak salatu dituzte». Aitor Esnaola eta Lander Etxeberriak «tortura, bortxa eta umiliazio izugarriak jasan dituztela kontatu dute espetxeratu berritan.

Estatuaren «jardueraren onartezin honi» erantzuteko bildu dira eragile eta sindikatu ezberdinak. Eta «inoiz baino ozenago» eskaki-

zun argiak jarri nahi dituzte mahai gainean.

«Betirako desagertu behar du»

Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoaren baitan onartezina zaie, «helburu politikoekin buruturiko atxilotetak egotea». Torturak «betirako desagertu behar du» adierazi dute, eta «ez dugu onartuko helburu politikoekin buruturiko bortxa basati gehiago. Inkomunikazioak bukatu egin behar du» azpimarratu dute eragile eta sindikatuek.

Euskal gizarteak, nahiz nazioarteko instantzia desberdinek, Estatu Espainolari «konponbiderako pausoa eman ditzan» eskatu diote. Eta «beheko errepre-siorako politikak aldatu» ditzala.

Eszenatoki demokratiko baterantz egin beharreko bide horretan «pausoa» eskatzen dizkiote. Eta errepre-sio politikak albertzeko eskari «zuzena, irmoa eta argia» luzatu dute.

Espainiako Gobernuak bide honetan jarraitzen badu ez direla «eskuak gurutzatuta geratuko» jakinarazi dute. Eta orain arte egin duten moduan, «eraso guztiek erantzun argia» izango dutela diote. Konpromiso berriak gauzatuko dituztela nabarmendu dute. Eta prentsaurrekoan, «prozesu demokratikoa bururaino eramateko helburuarekin» lanean jarraituko dutela. Era berean, bide horretan, «errepre-sio politikak» etetea beharrezkoa izango da.

Buruz Buruko Txapelketan hasteko prest daude 32 pilotari

Oinatz Bengoetxea, Asier Olaizola, Jon Jaunarena, Mikel Olaetxea eta Mikel Olazabal ariko dira

E. Maiz

Aurkeztu dute 2011ko Eskuz Banakako Txapelketa. Larunbatean hasiko da, Haro eta Iruñeko pilotalekuan. Izen handiekin batera, sei debutari izango ditu aurtengo txapelketak. Eta Buruz Buruko, sistema klasikora itzuli da, hau da, eskailerara. Sakea berriaz, lau 1.erdiko marrara atzeratu dute.

Hamasei pilotari lehiatuko dira: Beroiz, Urrutikoetxea, Beloki, Idoate, Arretxe II.a, Aritz Lasa, Merino II.a, Albisu, Retegi Bi, Gonzalez, Bengoetxea VI.a, Olaizola II.a, Xala, Olaizola I.a, Ruiz eta Martinez de Irujo.

Abel Barriolak ezin izango du jokatu, eskumuturrean ebakuntza egin behar diotelako.

Larunbatean emango diote hasiera, eta alde batetik Beroiz eta Urrutikoetxeak jokatu dute Haron, eta bestetik, Beloki eta Idoate lehiatuko dira Iruñeko Labrit pilotalekuan. Igandean, Merino II.a eta Albisu ariko dira nor baino nor Ezkaraien. Eta hilaren 25ean, Eibarren, Arretxe II.a eta Aritz Lasaren artekoa izango da.

Behin partida hauek jokatu, zain izango dituzte hurrenez hurren, Retegi Bi, Gonzalez, Bengoetxea VI.a eta Olaizola II.a. Hauek guztiek maiatzaren 1ean jokatu dute. Ondoren, zain dauden azken lau pilotariak sartuko lirateke, Xala, Olaizola I.a, Ruiz eta Irujo.

Zilarrezko mailan, 16 pilotari

Banakako Promozio Txapelketak baditu dagoeneko protagonistak. Kasu honetan ere, 16 pilotari izango dira: Iza, Argote, Rico IV.a, Mikel Olaetxea, Peñagarikano, Ibai Zabala, Lemuno, Ladis Galarza, Gorka, Cecilio, Zabaleta, Jon Jaunarena, Olazabal eta Ongay ariko dira.

Ostiralean, Gorkak eta Argotek emango diote hasiera Quintanar de La Sierran. Eta irabazleak Olazabal zain izango du. Larunbatean, Iza eta Galarza eta Rico eta Cecilio ariko dira. Eta Jaunarena eta Peñagarikano izango dituzte zain. Astelehenean, Olaetxea eta Zabaleta ariko dira, eta Leiza izango dute hurrengo aurkaria. Eta aurrerago, Merino I, Lemuno, Zabala eta Ongay izango dira aurkari.

Irudimen eta ilusioz betetako ipuinak eta marrazkiak saritu dituzte

Hizki-Marrazki Ipuin Lehiaketako sariak banatu dituzte Ikastolan; ipuin kontalaria ere izan da

Eneritz Maiz Anoeta

Anoetako Udaleko euskara eta kultura batzordeek, Anoetako herri ikastolarekin batera, Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketako sariak banatu zituzten atzo, ikastolan. Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatuta dute lehiaketa.

Eguna ipuin kontalariarekin hasi zuten. Zurrumurrutaldek *Zomorroak* ipuina kontatu zien Mikelasagasti Auditoriumean. Ondoren, Ikastolan sari banaketa egin zuten. Banaketarekin hasi aurretik, Jaione Pagola eta Itsaso Estangak idatzi duten, eta saritua izan den, *Zeruaren beste aldean dagoen mundu ezkutua* ipuina irakurri zuten, ipuin kontalariak.

Gazte literatura suspertzen

Adinaren arabera, kategoriak banatu dituzte, eta honako hauek izan dira sariak jaso dituzten lanak eta egileak: 8 eta 10 urteko neska mutilen artean, lehen saria

Alaitz Arozenak eskuratu du, *Asier eta Mikel Santa Ageda Egunean* ipuinarekin. Jarraian, *Norden beldurgarriena* lanarekin, Oier Tejeria sailkatu da, eta hirugarren postua, Irati Irazustarentzat izan da, *Ordenagailu hitzuna* ipuinarekin.

10 eta 12 urtekoen artean, *Arztaina eta dragoia* ipuina zian da saritua eta bere egilea, Aitor Amonarriz da. Bigarren saria jaso dutenak, Aitor Gallurralde eta Koldo Descalzo izan dira eta Lehenengo gerra ipuina idatzi dute. Eta sail honetako azken saritua, Lekzio bikaina ipuinarekin, Xabier Zubeldia izan da.



8 eta 16 urte bitarteko saria jaso duten, 15 ikasleak. E. MAIZ

12 eta 14 urteko neska mutilen artean berriz, lehena, *Zeruaren beste aldean dagoen mundu ezkutua* ipuina izan da eta hau, Jaione Pagola eta Itsaso Estangak idatzi izan da. Hauen atzetik bigarren saria eskuratu, Maitane Urkola eta Amaia Estangaren, *Lurraren desagertpena* ipuina izan da, eta hirugarren sailkatua, Xabier Baldak idatzitako, *Irla galdua* ipuina.

14 eta 16 urtekoetan, lehena, Jon Fernandez idatzitako *Aitona*

zoroa ipuina izan da. Bigarrena, *Bizitzako ustekabeak*, Alex Haranbururena eta hirugarren saria berriz, *Suspensoen konkista* izan da.

Hala ere, antolatzaileek, eskerak eman nahi dizkie saritua izan ez diren, baina lehiaketan parte hartzaile izan diren guztiei. Lehiaketa honekin, euskara biziberritzeko plan nagusiaren barruan, haur eta gazte literatura suspertzea dute helburu.



Pagola eta Estangak idatzitako *Zeruaren beste aldean dagoen mundu ezkutua* ipuina adi entzun zuten. E. MAIZ

Etxeek eraikitako historia

Herriko etheen historia jaso du Joxe Mari Oterminek aurkeztu berri duen 'Amezketak etxez etxe' liburuan

Imanol Garcia Amezketak

Joxe Mari Otermin bere jaioterria den Amezketaren historiari buruzko liburuak argitaratzen ari da. Azkena, *Amezketak etxez etxe* izenekoa. Liburuaren jendaurreko aurkezpena egin berri dute. Lan mardula egin du Oterminek: 620 orrialde, 220 fitxa inguru, 500 argazki inguru... «Etxeen historia egitea, herria nola osatzen joan den poliki-poliki ikustea ere bada», dio historia arakatzaileak. «Etxeen historia egitea, herriaren historia egitea da. Etxeak aztertzea, herria aztertzea da».

Jendea bizi izan den eraikinak sartu ditu liburuan. «Amezketako jendea etxeetan bizi zen, baina baita saletxeetan ere, erdi borda, erdi bizitzak zirenak, eta kasu batzuetan bordetan ere bai», dio Oterminek. Etxe hitza erabili du, baina bere zabalatasunean hartuta. «Kasu batzuetan etxeak izango ziren, beste batzuetan saletxeak. Beraz, amezketarrok historian erabili ditugun aterpe, babesleku eta teilatupe guztiak liburura ekartzea izan da irizpidea».

Oterminek gaineratzen duenez, «harrigarria egiten zaizu borda batzuetan jendea nola bizi zitekeen. Eta harrigarriagoa egiten zaizu borda batzuetan bi familia bizi zirela jakitean». Aparte utzi ditu mendiko etxolak. «Beharbada hori beste norbaitek egin beharreko lana da», dio liburu egileak.

Zutik daudenak

Etxeak aukeratzera erabili duen beste irizpidea gaur egun zutik daudenak kontuan hartzea izan da, baita erortzeko zorian daudenak ere. «Saiatu naizena da etxeetan pertsonak kokatzen, eta pertsonak bizi izan diren heinean, etxearen historia osatu ahal izan dut, etxeari buruzko informazioa eman», azaldu du egileak.

Zenbait kasutan, zutik ez dauden etxei buruzko informazioa ere eman du liburuan: egun etxe berri jakin batzuen aurretik zeuden etxeena, alegia. Horren adibide da Kanpaindegí Haundi eta Txiki etxeena. Medikuetxe izenekoa 60ko hamarkadan eraiki zuten. Leku horretan, garai batean aipatutako bi etxe horiek zeuden. «Medikuetxe historia laburra duenez, eraikin horretaz baliatzen naiz Kanpaindegí zaharren historia jasotzeko».

Liburutik kanpo 30 etxe inguru



Joxe Mari Otermin, *Amezketak etxez etxe* liburuaren eskuan duela, Juanlopezenea etxearen aurrean. I. GARCIA



Juanlopezenea etxearen 1896ko argazkia. 'AMEZKETAK ETXEZ ETXE'

geratu dira. «Denak sartuz gero, liburu handiegia ateratzeko arriskua zegoen», dio Oterminek. Horiakin eta liburu materialarekin, aurtengo udazkenerako edo, Interneterako edizio berri bat egingo du. Udaletxearen historia ere sartuko da Interneten, eta labor bada ere, elizarena ere jarriko da.

Etxeak, pertsonaren izena

«Zerbait erakutsi baldin badit liburuak, etxe asko daudela izen bakarrekoak, baina beste asko daudela izena aldatutakoak», azaldu du historialariak. Egundak kultur etxea edo herri zentroa dena jartzen du adibide gisa: «Gurretzat Doloxenea zen, edo Aierbenea. Aierbe familiakoa zen. Doloxenea izena ez nekien nondik etortzen zen. Etxe horretan taberna bat egon zen eta liburuan argazki bat badago. Etxekoandreak Dolores izena zuen, eta horregatik deitzen zitzaion Doloxenea».

1615 urte inguruan, pertsona garrantzitsu bat bizi izan zen bertan: Juan Lopez de la Torre. Amezketako herria Tolosatik banandu eta gero izan zuen lehen alkatea izan zen. «Etxe horri, orain arte, ofizialki, Juanlopezenea deitzen zitzaion», dio. «Ikusi dut le-

Amezketako etxeei buruzko lehendabiziko dokumentua 1409 urtekoa da

«Herriko arazoetan parte hartzeko eskubidea etxeen jabeek zuten bakarrik»

henagoko izena dela Ibarluze Barrera. Orduan, ikusten dena da, etxe batzuk bere historian izen asko izan dituztela». Izen horiek oro har bi motatakoak dira. Oterminek dioenez: «Leku izenak, eta



Liburuaren azala.

Ibarluze Barrera nolabait horren adibide da. Eta gero, etxe horretatik pertsona ezagun bat pasa bada, bere izena eranstean zaio. Amezketan kasu asko daude horrelakoak».

Amezketako etxeei buruzko lehendabiziko dokumentua 1409koa da. Ordurako azaltzen dira gaur egun ezagunak diren etxeak eta auzuneak: Zubillaga, Ugarte, Argañaras, Toledo, Ibarluze Goena eta Barrera, Zurairrain, Sasturain... Amezketako herriak egindako eskari batean, pertsona batzuen izenak azaltzen dira, eta horrekin batera, zein etxeetakoak ziren.

«Beste gauza bat da etxe bakoitzari buruzko informazio zehatza, handik mende batera edo gehiagora arte ez izatea», dio egileak. «Aipatu bai etxea dokumentuetan, baina etxeak norenak ziren eta datu gehiago XVII. mendetik aurrerakoak dira». Dokumentazioa hainbat artxibotatik jaso du:

Valladolideko artxibotik, Madrilgo Artxibo Nazionaletik, Donostiako Seminarioko artxibotik eta batez ere, Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxiko Orokorretik. «Azken boladan Jabetasun Erregistroan izan naiz», dio Oterminek.

«Etxeei buruzko informazio gehiena Hipoteka Kontuetan dago», dio. «Eta hori Gipuzkoako Artxibo Nagusian dago. Informazio hori 1862an bukatzen da. Hortik gerokoak Jabetasun Erregistroan daude, Tolosan bertan». Amezketako udaletxean ere aritu da, herri artxiboan.

Laugarren liburu

Oterminek Amezketaren historiari buruz idazten duen laugarren liburu da orain argitaratu dena. «Amezketak herriari buruzko informazioari dagokionez gabezia zuela ikusten nuen», esan du egileak, eta Zegama jartzen du adibide gisa: «Amezketak eta Zegama oso antzekoak dira. Zegamak, baina, informazio asko du argitaratuta. Horrek bultzatuta hasi nintzen informazioa bilitzen».

Aurreneko liburu atera zuenean, jendea harrিতuta gelditu zela dio: «Amezketan hainbeste gauza egotea posible ote zen galdetzen zidaten. Honen inguruan, askotan esaten dut behin *La Vanguardia* egunkarian irakurri nuen kontzeptu bat: txikitasunaren zabalatasuna. Herri hauekin hori gertatzen da. Uste duzu liburu xabor bat atera daitekeela eta informazio ikaragarria dago». Amezketak oraindik liburu gehiago egiteko ematen duela dio. «Jendeak liburuak estimatzen ditu, eta irakurri ere egiten ditu, aldiari behin oso galdera zehatzak egiten dizkirate eta».

Oterminek *Amezketak etxez etxe* liburuan argazki zahar gehiago ez egotearen pena du. «Liburuaren gabeziak, inor baino hobeto egileak ezagutzen dituela esaten dute. Nik ere horrela uste dut. Nik estimatuko nukeen argazki zahar asko liburuan sartzea. Ibiliz naiz bila. Gaurko etxe asko ikusita, badakizu ez dutela zerikusirik garai batekoekin. Gustatuko zitzaidan etxe zaharrak ahal nuen neurrian erakustea, baina nahi baino gutxiago daude liburuan».

Liburu a etxez etxe banatuko da. Herritarrek, ziurrenik, bakoitza bizi den etxearen historia irakurriko dute. Halere, Joxe Mari Oterminek gauza bat azpimarratu nahi du: «Etxearen historia irakurri aurretik, liburuaren hasieran dauden testuak irakurtzea komeni da, etxe baten jabe izateak zer esan nahi zuen jakiteko». Egileak dioenez, «etxea babesa da, aterpea, estalpea, teilatupea, baina etxearen jabe izateak, batez ere gizartean mugitzeko modua ematen duen. Herriko arazoetan parte hartzeko eskubidea etxeen jabeek zuten bakarrik».

Gimnastika erritmikoko Gipuzkoako finala jokatu da Ibarra

Gimnastika erritmikoko finala maiatzaren 14an jokatu da, eta bertan ariko dira Belabietakoak

M.U. Ibarra

Maiatzaren 14an, Ibarra Kiroldagian gimnastika erritmikoko A mailako finala jokatu da, eta bertan Belabietako K.E.ko ordezkariak izango dira.

Ia urtero bezala, Belabietako K.E.ko gimnastikariak behetik gorako joera izan dute sailkatze saioetan. Horregatik, maiatzaren 14an jokatu den finalean ariko dira Belabietako infantilak eta ju-

benilak. Hauek dira taldeka eta bakarka ariko diren gimnastikariak: Idoia Ezeiza, Onintza Odriozola, Miren Ezeiza, Irati Maritxalar eta Izaro Esnaola.

B mailako finala

B mailako finala, berriz, maiatzaren 21an izango da, Ordizian. Bertan alebinak eta infantilak izango dira, taldekako nahiz bakarkako lanak egiteko.

Alebinetan lau gimnastikalarik lortu dute finalerako txartela: Edurne Ezeiza, Maialen Mariezkurrena, Ane Kalegain eta Ibane Zinkunegi. Infantiletan, berriz, Mirian Uzkudun, Leire Mendigain, Ainhoa Ibarguren, Aintzane Agirre eta Laida Olazabal lehiatuko dira.



Belabietako K.E.koak Ibarra jokatu den finalean ariko dira. HITZA

Haur eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak izango dira Pazko Astean

Antzerkia, ipuin kontaketa eta magia izango dira, besteak beste, Pazko Asteko ekitaldien artean

Maier Ugartemendia Ibarra

Ibarra Kultura eta Gazteria Batzordeak Pazko Asteak haur eta gaztetxoei zuzendutako programazio berezia antolatuko du. Ekitaldien babeslea, Kutxa Gizarte Ekintza izango da. Ekitaldiak apirilaren 26tik 29ra bitarte egingo dituzte.

Ekitaldi guztiak doakoak izango dira. Lekuari dagokionez, guztiak Benito Izagirre kultur etxean

egino dira. Ibarra Kultura eta Gazteria Batzordeak haur, gaztetxo, guraso zein aitona-amei berretarazteko gonbitea luzatu die.

Aukera zabala da. Antzerkiak, ipuin kontaketa eta magia izango

zatu ahal izango dute familiako kide guztiak. Opor egun hauetan kanpora joaten ez direnentzat, egun hauek modu bereziago batean pasatzeko aukera bikaina izan daiteke honako hau.

↓ Pazko astea 2011

APIRILAK 26, ASTEARTEA

■ **17:00etan.** *Ipuin baten gerizpean* antzerki emanaldia Txalo taldearen eskutik.

APIRILAK 27, ASTEAZKENA

■ **17:00etan.** *Paperezko zirkoa* ipuin kontaketa saioa Apika taldearen eskutik.

APIRILAK 28, OSTEGUNA

■ **17:00etan.** *Biziklapenaren magia* Eriz Magoaren eskutik.

APIRILAK 29, OSTIRALA

■ **17:00etan.** *Mus-Hika* musika antzezkiuna Irrintzi taldearen eskutik.

Asteasun izango da aizkorako txapelketako jardunaldietako bat

Asteburu honetako bi jardunaldietan, jokoan dauden 3 mailetan, eskualdeko 6 aizkolarari ariko dira

M. Ugartemendia

Asteburu honetan, Urrezko Aizkolarien artean, maila ezberdinetan, ariko dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko sei aizkolaria. Eusko

Label Banakako Aizkolaria Txapelketako beste jardunaldi bat jokatuko baita. Lehena Asteasun izango da, hilaren 23an, larunbatean, 18:00etan. Hemen elite mailan ariko dira Jesus Mari Mujika ibartarra, eta Joseba Otaegi zizurkildarra. Kanporaketa sisteman bidez jokatzeko ari direnez, parte hartzen duten 5 aizkolaritatik 2 soilik pasako dira hurrengo jardunaldira. 23 urte azpikoen artean 3 aizkolaria lehiatuko dira, eta bakarrik izango du hurrengo jar-

dunaldira pasatzeko aukera. Hauen artean egongo da Arkaitz Olano, leitzarra. 15 urte azpikoen artean ariko da Mikel Zabaleta, leitzarra, hiru puntu eskuratzeko ahaleginetan.

Hilaren 24an, igandean, 12:00etan, beste jardunaldi bat jokatu da. Bertan elite mailan ariko dira Jon Rekondo eta Ruben Saralegi, leitzarrak. 5 aizkolaritatik bik soilik jarraituko dute aurrera. 15 urte azpikoen artean, Mikel Zabaleta ariko da berriz ere.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zaintzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!
Iara (Bidegoian).
Gaur urtebete.
Muxu handi bat
etxekoan partetik!

Zorionak!
Eñaut Gurrutxaga Etxeberria
(Tolosa). Gaur 9 urte.
Zorionak etxekoan eta batez
ere Leireren partez.

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Anadir elkartearen bilerak hilaren 27an, asteazkenean. Iturriza jubilatuko elkartearen lokalean bilduko dira, lehen solairuan, 11:30ean. Topic-en ondoan dagoen elkartean, lapurtutako haurren inguruko batzar informatiboa burutuko dute. Tolosako kliniketan ustez gertatutako kasuak ere aztertuko dituzte, besteak beste.
■ **Armezeta.** Il. Frontenis Txapelketa maiatzaren 7an hasiko da, eta bi maila bereizi dituzte: neskak eta mutilak. Izena udaltxean bertan eman behar da, eta horretarako azken eguna apirilaren 29a, ostirala, izango da. Bikoteka jokatu da eta jo-

kalarietako batek amezketarra izan behar du.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa. Boga Berria** emakume arraunlariei buruzko argazkiak Aranburu jauregian apirilaren 23a bitarte. Emakumeen Donostiako banderaz gain, eskualdekoen argazkiak daude. 17:30etik 20:30era jaiegunka eta astelehenak izan ezik.
■ **Tolosa.** Naroa Armendarizen *Perla Pinturak* Aranburu jauregian maiatzaren 7a arte. Ordu-tegia: 17:30etik 20:30era jaiegunka eta astelehenak izan ezik.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Belauntza-Leaburu



UMEEK EZ DUTE ASPERTZEKO ASTIRIK

Aste Santuan haur eta gaztetxoek bi asteko jaiak izaten dituzte. Baina, zenbait herritan ez dute aspertzeko denborarik izango. Belauntzan eta Lea-

burun, esate baterako, haurrak ludotekara joaten dira goizero. Bertan hainbat eskulan eta jolas egiten dituzte geldirik ez egoteko. M.UGARTEMENDIA

Farmaziak

APIRILAK 21, GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzenean, 9. 943 67 51 18.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

APIRILAK 22, BIHAR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

APIRILAK 23, LARUNBATA

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

APIRILAK 24, IGANDEA

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

APIRILAK 25, ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. 112.

APIRILAK 26, ASTEARTEA

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako Arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. 112.



XIII. HITZA Aste Santuko argazki lehiaketa



Harpidedun bakoitzak argazki bakarra bidali dezake argazkiak@hitza.info helbidera
Argazkiak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 13